**Sozialki ere oso puntu garrantzitsua izan zen aldaketa hori.**

* Hala da, esan dugun bezala, hasieran "anarkista" batzuk ginen, euskaraz ikasten eta gainera pedagogia horrekin... Baina ondoren arrazoia eman ziguten askok. Izan dira metodologia honengatik, harreman honengatik, haurrak gure ikastoletan sartu dituztenak. Ez euskararengatik, erabili den metodoagatik baizik.

Mintzaldi batean, katalan batek eskolen eraikuntzei buruzko azterketa baten berri eman zuen. Bere ondorioa eskola, gartzela eta psikiatriko guztientzat egitura bera zegoela ikustea izan zen. Irakaskuntza goitik behera kontrolatua zegoen eta haurren bizia ere bai. Guk hori aldatu genuen.

**Estatu mailan nolako harremana zenuten Freineten mugimenduarekin?**

* Bileretara eta urteroko kongresuetara joaten ginen. Eta hemen gure artean ere biltzen ginen. Horrez gain, Ziburun estatuko eskolako irakasle frantses batekin elkartzen ginen.

Freineten eskola ofizialik ez zen estatu frantsesean. Irakasle bakoitzak bere teknikak aplikatzen zituen bere gelan eta gu irakasle horiekin elkartzen ginen.

* Seaskaren barnean kostaldekoak eta barnekaldekoak biltzen ginen bi hilabetean behin edo.

* Bazen "L'educator" aldizkaria ere eta hortik ere gauzak ateratzen genituen. Kongresuetan, berriz, eskoletako esperientzien testak egiten genituen, gure gelaren aurkezpena eta esperientzia nolakoak izan ziren komentatzen genuen.

**Lotura hori noiz arte mantendu zen?**

* Seaska bezala 80-84an inguruan utzi genuen. Baina teknikak barneratuak izan dira eta aplikatzen jarraitu da.

* Momentu honetan lan-txokoak, korrespondentziak e.a. ikastola guztietan zabalduta daude.

**Izpirutua mantentzen da, orduan, nahiz eta mugimenduarekin harreman zuzenik ez eduki.**

* Nik uste dut izpiritua oinarrian hor dela beti.

**Freineten ondoren Piaget etorri zen bere teoriekin, eta honekin Freineten teknikek indarra galdu zuten. Zein eragin izan zuen horrek zuengan?**

* Korronteek beti bata bestearen aurka egiten dute, baina hauek osagarriak dira. Piegetek urrats bat gehiago eman zuen. Esperientzian soilik oinarrituz ez dela ikasten zioen. Pentsakera moldean urrats intelektual bat ematen ez baduzu, haurra bera bakarrik ezin dela iritsi ikastera zioen. Adibidez, zuhaitz batetik sagarrak erortzen direla ikusten du, baina ez daki grabitatearen printzipioa. Haurrak, berez, esperientziarekin soilik ezin duela ikasi zioen; batzuk gehiago iristen direla, baina beste batzuk bultzatu egin behar direla erreflexio hori egitera.

Freineten printzipioa, berriz, esperientzian oinarritzen zen, metodo naturalean, haurraren esperientzia propioan. Baina esan bezala, osagarriak diren metodologiak dira biak.

**Gaur egun korronte definiturik ba al dago?**

* Ez, orokorki ez. Ez Seaska mailan eta ezta estatu mailan ere. Ofizialki konstruktibismoa dago estatu frantsesean gaur egun, baina denetarik dago.

**Orain beraz, nola zaudete? Zein norabidetan?**

* Orain dela bi urte berriz aldizkariak hartzen eta irakurtzen hasi nintzen, eta oso aldizkari onak dira. Baina egia esan, nahiko krisian daude.

* Dena den, guk Freineten teknikak aplikatzen jarraitzen dugu. Eta eskola frantses tradizionalekiko desberdintasuna hori izateaz gain, horrek dakarren beste bat ere oso nabarmena da: gurasoekiko harremana. Geure harremana guraso eta haurrekin beste bat da. Beraiek ere erantzukizun bat dute eta autonomia bat ematen diote horrek. Gurasoen partaidetza oso handia da.



Itziar Barriola



Jone Forkada



Margari Etxart